

Ipar Euskal Herria hauteskundearen atarian

Lehen itzulia kantonamenduetan

RPRk ohizko nagusitasuna galdu du kantonamenduetako lehen itzulian

Isasertzean abertzaleentzat boto kopuru interesgarriak izan dira


Kantonamenduetako hauteskundeak historikoak dira guretzako, ikusita zein kopuru onak lortu dituzten abertzaleek Euskal Herrian entzuten ahal zen RPRko ordezkarien ahoan joan zen igandean, Pabeko frantses administrazioaren egoitzan, Prefeturan.

M. ESTEBAN / BAIONA

Michel Intxauspere aulkia zalantza izan zen aipagai nagusia atzo Biarno eta Ipar Euskal Herriko RPR alderdiaren ordezkarien solasean azken hauteskundeak komentatzeko. Ikusita, nola RPRk gibelarazi zuen batez ere azken udal hauteskundeetan Lapurdiko kostaldean, Intxauspere kasua beste abisu bezala onartzen dute RPRkoek. Gainera, hamar kantonamenduetarik bederatzik egongo dira bigarren itzulientzat.

Jacques Coumet RPRkoa bakarrik hautatua izan zen atzo lehen itzulian Hazparneko eskualde edo kantonamenduan % 63,05ekin.

Garaziko kantonamenduarekin, RPRko buruzagi zen Iholdi, Bastida eta Miarritze Mendebaldean: toki hauek kontseilariak ez dira hautatuak izan lehen itzulian. Bigarren itzulirako, RPRko hautagaiak emaitza onak ukan arren % 35 inguruarekin, alderdiak kolpe txartat jo ditu igandean.



✓ **François Maitia** PSeko departamentu idazkariaren emaitza Garaziko eskualdean (%15,34) Koxe Larre abertzalearena baino 5 puntu txikiagoa izan da.

deko kantonamenduetako hauteskundeak.

RPR Nafarroa Behereko eta Lapurdi Barnekaldeko eremuetan ongi dabil ohituraz, batez ere euskaldun eskualdeetan. Gaur egun, toki hauek ere hautagai eta zerrenda abertzaleak emaitza nahiko onak lortzen ari dira orokorki eta hau lehen aldikoz gertatzen da.

Beste alderdi handia den PSri buruz, azpimarra daiteke ere erregioetako hauteskundeetan bezala, gaizki dabiltzala. Lapurdiko kostaldean % 12 inguruan eskuratu du PSk. Azpimarratzekoa da François Maitia PSeko departamentu idazkariaren emaitza % 15,34 Garaziko eskualdean Koxe Larre abertzale hautagaiak baino kasik bost puntu gutxiago.

Mundu abertzalean erreakzio baikorrak

L.E. / BAIONA

Gero eta gehiago Frantziako politika 'nazionalak' markatzen dituen erregio eta kantonamenduetako hauteskundeetan, aldi honetan ere alderdi abertzaleentzat gorakada zaila gertatu zaie. Manex Pagola EAKoak eta Entau Pais biarnesarekin egin zerrenda batuko bigarrena eta Jakes Abberri EBkoa, EMArekin bultzatu Abertzaleen Batasunaren zerrendaburuak hauteskunde hauek baikor hartu dituzte.

■ **ABEBERRI:** «ABERTZALEEK BEREN AURRERAKADAN DARRAITE»

Jakes Abberri: «Kanpainaren eramatea ereduagarria izan da abertzaleentzat. Hasierako urradura konpondu ondoren, denek lasaitasunean ongi egin dute lan. Mugimendu abertzale osoarentzat lorpen bat da geroan bere ondorengoak izango dituen».

Erregioari begira, nabari da ez

dela toki egokia abertzaleentzat, eremua ez bait dago Euskal Herria eta urrutiko botere baten aldakuntzan influentzia oso guti baizik ez bait daukagu. Gure helburua zen Ipar Euskal Herrian jokatzeko eta ez Pirineo Atlantiarrenarean. Ez gara udal hauteskundeetarako 10 marrera iristen. Azken hauteskunde erreferentzia den honetan motibazioak ezberdinak ziren. Uste dut emaitza aski ona dela erregio hauteskundeetan, dezepzio batzuekin kostaldean, bereziki Baiona-Angelu-Miarritzekoa ez da ona eta jende gehiena hor izanez, batez bestekoa apaltzen du. 1986ekoari alderatuz, orduan EMA bakarrik zen, bikoiztea lortzen dugu, ez da gaizki.

Kantonamenduei begira, emaitza ezberdinekin, beste hauteskunde forma baten eredu da, pertsonalagoak. Hori nabaritzen da Hazparne edo Garazin non kantonamendurakoetan hautagai

abertzaleek erregioetakoan baino % 10 gehiago lortzen bait dute, beren irudi pertsonal indartsuagatik. Azpimarratzen ahal da ere gertakari historikoa dela abertzale batek zalantza jartzea Garazin Ipar Euskal Herri barneko botere absolutuaren ordezkari denaren eskainua, bidenabar Maitia sozialista baztertzuz.

Oro har, hauteskunde horiek abertzaleen aldekoak izan dira eta agertzen dute beren aurrerakada eta sustraitzea».

■ **PAGOLA:** «EZ DUGU ABERTZALEEN GORAKADA TRABATU»

Manex Pagola: «Abertzaleek lortu kopuruari begira, bozketa berdinekin parekatuz, ikusten da abertzale guziena goiti doala, bikoizten dela. Beraz Eusko Alkartasuna Entau Paisekin joateak ez du abertzaleen gorakada trabatu».

Baina pena dugu halere ez dugulako hautetsirik lortu, sistemaren bezalakoa izanez. Altabada

✓ **RPRko Jacques Coumet** bakarrik izan zen hautatua Hazparneko eskualdean lehen itzulian, % 63,05ekin.

KOSTALDEA ETA ABERTZALEAK

Angelu Iparraldearen aldean ere emaitza nahiko onak izan dira: André Gracianette UDF eta kaskoin izatearen zaintzaileak bere aulkia ez bait du berriz lortzen lehen itzulian. Kantonamendu honetan ere 'notabilismoaren garaia' ahuldu da dirudienez.

Hauteskunde hauekin datozen kantonamenduetako giroa ere iragartzen ari da. 1994. urtean Ipar Euskal Herriko kantonamenduen beste erdia berritzen da. Aurten hamar berritzekoak ziren 21 kantonamenduetan Iparraldearentzat.

Botu abertzaleari dagokionez kostaldean, kopuru nahiko interesantak agertzen dira batez ere Baiona aldean eta Miarritzen % 5 edo % 7 bitarteko zenbakiekin. Alderantziz, Angelun, EMAko Jacques Saldubeherek % 3,5 inguruan baizik ez du egiten.

Zuberoan ere Atharratzeko kantonamenduan, abertzaleek ez dute kopuru on bat lortu % 5 baizik eginez.



Michel Intxauspe. M.E.

Michel Intxauspere aulkia zalantza dago abertzaleen eraginagatik

M.E. / GARAZI

Paben Kontseilu Nagusi barruan kezka bat agertu zen igandean, batez ere Pirinio Atlantiar departamenduko RPR alderdian, Michel Intxauspe Garaziko kontseilariaren aulkia zalantza dago EMAko Koxe Larre hautagaiarengatik.

Michel Intxauspek 1960. urtean hautatua izan zen Garaziko kontseilari, Paben kokatzen den Pirinio Atlantiar Kontseilu Nagusiko partaidea izateko. Orduz gero, Intxauspek bere burua beti aurkeztu izan du eta beti aukeratu izan da lehen itzulian.


Joan zen igandean, lehen aldikotz ez zuen gehiengorik lortu lehen itzulian eta % 48,68ekin, alde txikiagatik ez zuen irabazi. Dirudienez txikia, baina jakin behar da ohituraz % 70 inguruan lortzen zuela. Bere atzetik, Larrek % 27 eskuratu zuen eta François Maitia PSeko departamenduan idazkari nagusiak % 20,57.



Jacques Abberri. A.S.

gure ustez, ikustaldi bakarrean, erran dugun bezala, posible izanen zen abertzale tendentzia guztien artean eta Entau Paisekin, behar zen eztabaidarik izan bazen. Ohartarazi nahi dugu bozka denboran ere eztabaidarik ez dela izan.

Guk lortu mila botoak, programa ginarritsu baten gainean, ez da mesprezagarri batere eta espe-



Manex Pagola. A.S.

ranta dugu. Deliberatuak gara, egiazko batasunik ezin bada egin, elkartasuna egiteko abertzalegoaren aniztasunari buruz.

Bigarren itzuliri buruz kantonamenduetan, bozkatzeko gomendiorik ez dugu eginen RPR-UDF-PSekei. Botoa ematea eskatuko diegu 'Ipar Euskal Herriko Biltzarren' alde agertuko diren hautagai».